

## LARRAMENDIREN HIZTEGIGINTZAREN INGURUAN

Lakarrak Larramendiren hizkuntzazko idazkiak irakurketa berri eta zuzenagoen premian daudela dio, Azkue eta Aranaz geroztik mespretxu eta gutxiespenean jarraitu baitute.

Laramendi *apologistatzat* jo izan dute. Lakarrak, ordea, hori baino zerbait gehixeago izan zela dio. Gainera, apologisten artean ere bereizkuntza bat egin beharra dagoela azpimarratzen du; ezin dira talde berean sartu Garibai eta Poza.

Garai hartan apologiak ezinbestekoak ziren; beren hizkuntza, hemen euskara zena, besteak bezain on, aberats eta konplutua zela erakusten zuten modu honetan, edota besteak bezain noble eta zahar.

Larramendik euskara *goren gradora* igo nahi izan zuen. Apologistek, apologista hust direnean ez dute hiztegirik egiten Larramendik eta Etxeberri ordea bai.

Larramendik bere hiztegian adierazten du hitz teknikoak deituko genituzkeen horiek guztiak asmatu zituela eta baita hizkera arrunteko beste bi edo hiru ere.

Hiztegian inolako euskalki bereiztasunik gabe, bildu ahal izan dituen euskarazko hitz guztiak bildu zituen, Euskal Herri guztietara zabal litezen eta denetan ezagut. Hauen ondoren erderatiko mailegu bertakotuak sartzen ditu eta azkenik soilik zientzia eta tekniketarako berbak asmatzen. Hauek, bai, guztiak asmatzen ditu , euskara gai horietan oraindik saiatu eta trebatu gabe baitzegoen.

Larramendi eta bere jarraitzaileek eta Sabino Aranarenek oso iritzi eta jokamolde ezberdinak dituzte, kontrakoak izateraino. Larramenditarrek halabeharrez sortzen dituzte berba berriak, ez erdaratiko euskal hitzen ordekozat baina bai erdal hitz ordaingabeak itzuli ahal izateko.

Sabindarrekin dituen ezberdintasunak ez dira hitz berrietara mugatzen. Guztiz onartzen ditu beste hizkuntzetan bezala gauza berri edotan kanpotik etorriei dagozkienak, hots, beren euskal ordaina izan arren jadanik hura baino hedatuago egta ezagunago direnak. Kanpoan uzten ditu aldiz, sermolari txarren eta elebidun baino euskaldun gaizotago ziren mihietan entzun ohi ziren erdarakadak.

Larramendi delako hitz baten edo bestearen erabileraz arduratzen zena bezain beste edo gehiago arduratzen zen gramatikaren erabileraz, El Imposible Vencido. Arte de la lengua Bascongada eredu. Euskal literaturako produkzioak gora egiten du Larramendik gramatika eta hiztegia argitaratu ostean.

EL ELEMENTO LATINO ROMANICO EN LA LENGUA VASCA  
(MITXELENA 1974)

h-z idazten dira dialektoetan hasperena dutenak eta garai modernoan hasperena izaten jarraitzen dutenak:

Baskonia historikoa ez da inoiz erabat erromanizatua izan. Erromanizazioa ez zen guztiz gauzatu baina latinarekin eta ondoren etorri ziren hizkuntza erromanikoekin kontaktu zuzena izan zuen. Ondorioz: euskarak latin-erromaniko jatorriko hitzak izatea. Maileguak: jatorriko forma antzekoen mantentzen duena eta aldaketa fonetikorik erakusten ez duena zaharragoa.

Bi irizpide mailegutzat hartzeko: 1- lehen begiratuan mailegu itxura duena 2- hizkuntzaren ondarea jarraitzen dutenak

Euskara zaharraren sistema fonologikoa latin klasikoarena baino askozaz sinpleagoa zen: unitate gutxiago eta euren arteko konbinaketa aukera mugatuagoa. Oposizio bereizgarriak direnak jatorrizko hizkuntzan, galdu egiten dira hizkuntza hartzailean. Adibidez, bokalismoa (latinean 10 euskaraz ez).

ALDAKETAK:

1. Mailegu berrietan, erromaniko bilakaeraren eraginez, euskarazko e, o latinezko i, u laburrengatik ordezkatuak: *balezta, beta...*
2. Ekialdeko dialektoak: i – u (ü) > u – u (ü – ü) bokalen asimilazioa ohikoa
3. au diptongoa: orokorrean berdindu da
4. Latineko ae eta oe erakusten duten lekukotasun zahar seguruak falta dira; - Mailegutan ohikoa ei > i murriztapena: eliza < eleiza; Txistukari sabaikaritu baten eraginez i galtzea ohikoa: elexa < eleiza
5. Hitz amaierako bokalak: Euskara Zaharrak edozein bokalez amaituriko hitzak: aita, bare, begi, beso, buru; Maileguen egokitzapenerako arazorik ez; u-z amaitutako ugari.
6. Euskaraz ezin zen kontsonante talderik onartu ondorioz hau konpontzeko: lehenengo kontsonantea kendu *plano* > *lau* ; edo -r- aren aurrean bokal protetikoa bat jarri.
7. Bokal artean: *ahostun* → *ahostun*; *ahoskabe* → *ahoskabe*
8. Lat. herskari ahoskabeak sudurkari eta l-ren ondoren ahostundu baina ahostun/ahoskabe oposaketa mantendu r-ren ondoren.
9. Hitz hasieran lat. herskari ahoskabeak ahostuntzeko joera
10. Euskal dialektoek bi txistukari apikari: s,ts eta z,tz; Hitz baten barruan mota

bereko txistukariak soilik erabiltzeko joera

11. Bokal artean:
  - lat. l > eusk. r: maledicere > maradikatu
  - lat. ll > eusk. l: vallatu > palatu
  - Mailegu berrietara ere hedatu da l > r:

1. Hitz hasierako kontsonantea galtzea ohikoa eta aspaldikoa da.

Mailegu asko berantiarrak dira eta Erdi Aroko latinetik hartuak.

Euskarak latineko atzizkiak hartu baina aurrizkiak ez ditu behar bezala garatu; ikerketa sakonagoen beharra.

## TOPONIMIA, LEXICO Y GRAMATICA (MITXELENA 1971)

Toponimia historikoari erreparatzen dio, Araba eta Nafarroako datuekin, onomastika bidez.

-aga, -eta: lekuzko izenetan agertzen dira; gainerako atzizkien modu ezberdinean jokatzen dute. Deklinabide atzizki moduan jokatzen dutela dirudi eratorpen atzizki bezala jokatu ordez. Hau ikusteko -tza(a) atzizkiarekin alderatu (-tza(a)-ren aldaerak: -tze, -zu/-doi).

FHVn ematen diren lege edo arauak ez dute balio -aga eta -eta-rentzat:

- -aga, -eta: euren artean bateraezinak: \*-etaga, \*-ageta.
- aga/-eta + IS (izen+adj.) ordena aldagaitza: izena+adj.+atzizkia
- Beste atzizki batzuekin determinazio adj. lekuzko baliorik Gabe
- Beste atzizki batzuekin konbinatzean ordena jakina, zehaztua: Zugas-ti/Zugaz-ti-eta.
- -eta: -aga-tik bereizten duena: ALDAERA duela -keta, txistukari ondoren. -eta-n: aldaera emankorra
- \*-ag > -ak
- aga: lekuzkoetan bakarrik azaltzen bada -(k)eta ere berdin; batez ere inesiboan.

Toponimia lexikoa baino zailagoa dela aldatzen aipatzen du. Eta honen adibide batzuk ematen ditu: “alde” zaharragoa “albo” baino; “behe” zaharragoa “azpi” baino; “zu” zaharragoa “tsu” baino...

Hainbat adibide ematen ditu azaltzeko:

ARRIDOKIETA: arritokieta: arri+ toki+ -eta

Zumaian ageri da Andre Mari de Arritokieta; Hala ere, 1500ean Arridokieta lekukotzen da, hau da zaharragoa. -d- > -t- bokal artean halako izen batean ez da inongo erregelatan agertzen ondorioz ez da aldaera. Mitxelenak proposatu: arri+idoki+eta

BATERNIA

Latineko *Paterniana* hitzaren euskarazko forma hitz hasierako herskaria ahostundu egiten da, bokal arteko ahoskabea mantendu eta -ngaldu.

CHINCHETRU

Hitz-elkartuak “-bide” dutenei atera diezaiekegun probetxua, hitz elkartu horren lehenengo elementuak, bideak eramaten zuen herria izendatzen zuen.

SUGARTEGIETA

“sugaar” hitzaren eraketa eta euskararen duen balioaz: Barandiaranek Mitología vasca (1960) sugaar ‘serpiente macho’ gisara. Bestalde, “sugaar”, “sugar” ‘llamarada’-gatik ordezkaturia izan da askotan, baina Barandiaranen erabileraren aldeko hautua: sugaar: erensuge.

## QUIRICIA

Badago honela deitutako erreka bat ondorioz hau kontuan hartuta, Horiek kontuan hartuta; bereziki Quiricia-ren “kiriza” edo “kirize” (itzala, berokia) (geriza/e/i...) ez da arraro suertatzen konposizioan kiza>kiriza topatzea

## TIRAPU

Euskarazko izenetan ez da ohikoa. Horrek, mailegua izan daitekeela pentsatzera garamatza baina hala ere ez da ohikoa t-, d- baizik.

Triapu < Tirapu: metatesia

-Tirapu vs Biriatu: itxuraz oso desberdinak baina funtsean hitz beraren aldaera dira

## EZQUIASSO

ezqui; ezki zuhaitza baina -asso ezin azaldu, hau azaltzeko zailtasuna.

Beste topónimo batzuetan gorputz atalen izenak ere ageri direla aipatzen du.

## LENGUA COMUN Y DIALECTOS VASCOS (MITXELENA 1981)

Artikulu honetan euskalkien iraganari buruz hitz egingo da, beren jatorrira hurbiltzen saiatuz.

### **Euskararen batasuna.**

Orain arte ez da lortu euskararen jatorria beste hizkuntza batekin/batzuekin lotzea (genetikoki harremana dutela baieztatzea) eta ez da uste inoiz horrelako ezer bilatuko denik. Jakina da, ordea, euskara ez dagoela batuta.

### **Euskalkiak**

Lacombe, Gorostiaga, Uhlenbeck: bi dialekto daudela diote. Bizkaiera edo mendebaldekoa batetik eta beste euskalki guztiak bestetik.

Tovar: Bizkaiera ezaugarri propioak dituen euskalkia da baina ez inondik inora ere independentea.

- Bizkaierazko ezaugarritzat har daiteke soilik eremu horretako ezaugarri bat bada asko Gipuzkoako eremu handi batean ere badaude

- Muturretako ezaugarriak erdialdekoak baino zaharragoak izaten dira, errazago irauten dutelako denboran atzera eginda ezberdintasunak txikiagoak izango ziren

Edozein hizkuntzak ezberdintzeko joera du baina hizkera ezberdin horiek ez dute autonomia nahikoa lortzen hizkuntza izateko izan ere dialektoen kontaktu eremuak eta bateratze indarrek ezinezko egiten dute bereiztea.

Hizkuntza bateratu batek egon behar badu euskalkien sorreran, eta hizkuntza bateratu hori gugandik oso urrun ez badago, nola sortu zen jakin beharra dago. Hizkuntzak ez dira berez bateratzen, norbaitek edo zerbaitek bateratzen ditu.

Erromatarrak iritsi izanak eragina izan zuela pentsatzen da eta honekin batera euskararen eremua murriztu egin zela. Hizkuntzaren eboluzioa ere bide beretik doala pentsa daiteke: Eremua murriztu → jatorri ezberdineko populazioa bildu

## GOGOETAK AITZIN EUSKARAREN ERRERAIKETAZ (LAKARRA 1997)

Jatorrizko hizkuntza, zeinetarik sortu diren hizkuntzen edo dialektoen sorburua eskuratzeko -zati bat bederen- azterketa diakronikoa dugu berreraiketa.

Hizkuntzen historiaurrea ezagutzeko bide honen barnean, bada, bi gailu edo bi bide ditugu: konparaketa eta barne-berreraiketa.

Lehendabizikoa, noski, delako hizkuntzarekin erka daitezkeenak eskatzen ditu; bigarrena hizkuntza bat bakarra edo bakartua denean erabili beharra dago, batez ere. Bai barne-berreraiketa eta bai konparaketazko berreraiketa metodo enpirikoak dira, ez metafisikoak.

### **Konparaketa:**

"Gramatika konparatua" deritzogun zientzi-sailaren helburua hizkuntza ezberdinen arteko erkaketen bitartez hizkuntz aldaketen historia egitea da. Meilletek zioenez bi eratako konparaketak dira: a) lege unibertsalak bilatzendituztenak; b) ondorio historikoen xerka doazenak.

Lehen araua, oinarrizkoa, ez gutxi-gora-beherako antzekotasunak baizik eta forma eta esanahizko korrespondentziak bilatzea dugu. Bigarren araua, gertu dauden hitzen arteko desberdintasunak arrazoi garbiz azaldu behar direla.

### **Barneberreraiketa:**

Ahaiderik ez duten hizkuntzei aplikatzen zaien metodo bat izan arren, sarritan gainerako hizkuntzei ere aplikatu beharra dago berreraiketa burutu ahal izateko. Barneberreraiketak kronologia erlatiboa egiteko balio du.

Barne berreraiketaren izaeran bertan dugu beste hizkuntzetara jo gabe hizkuntza baten barneko eredu zenbaitetan, hizkuntza horren lehenagoko garairen bati buruzko frogak aurkitu ahal izatea.

### **Aitzinhizkuntzaz**

Edozein hizkuntza izan liteke besteren aitzinhizkuntza.

Aitzinhizkuntza ondoko hizkuntz(ar)en lekukotasunean oinarrituaz berreraikitzen da, analogía etsaia da eta sahiestu beharra.

Aitzinhizkuntza batetik beste aitzinhizkuntza bateko aldaketak aztertzeke orduan lege fonetikoek indar handia dute. Aldaketa honetan fonologiak erregulartasun handia erakusten du, usuenik hizkuntzalariak gai direlarik hori gobernatzen duten "lege fonetikoak" antzeman eta zehazteko.

Berreraiketako zailtasunen aurrean hainbat irizpide daude: aldaketa ohikoagoarena, hitzak laburtzeko joera, hitzen luzeerarena, irregulartasunaren irizpidea, lege sinkronikoa eta geografia linguistikoa.

## EUSKAL ADITZ MORFOLOGIA ETA HITZORDENA: VSO-TIK SOV-RA? (GOMEZ)

1--Pertsona-komunztasura markak jatorrizko izenordain askoak, klitiko mailatik igaro ondoren aitzerroari uztartu zitzaizkionak.

Munduko hainbat Htan proposatu, aditz inflexioan agertzen diren komunztaduramarkak, jatorriz izenordain. Izenordain> klitiko> aditzari uztartu zaizkio komunztadura.

Euskaraz, euskal aditzeko pertsona-marken izenordain jatorria. \*na-, \*ha-, \*ga-, \*zaizan zitezkeen izenordain klitikoen formak, gero aditzari uztartuko zitzaionak.

Ondorioak: lehen eta bigarren pertsonen markak izenordainetatik datos. Baina hirugarren pertsonaren markak izenordainetatik ez datos, numero-markekin eta bestelako partilulekin lotu.

2--Pertsona bakoitzeko komunztadura-markak berdina dira, abs., dat. Eta erg. Hirugarren pertsonan 0 marka

Absolutibo singularraren markak: d-,z-/0-, l-,b-.Rijk (1992)d-< da, z-<ez(en) edo agian ze, l <a(h)al, b-<ba. Baina Schuchardtek,Lafonek,Traskek eta bestek tenpus, modu eta asperktuarkin lotu dituzte partikula hauek. Honela erakutsi, 3.p. marka 0 dela beti absolutibo eta ergatiboan. Pluraleko 3.p. ere pluralgile bat azaltzen dela, ez pertsonamarka

3--SOV hizkuntza batean nekez uler daitezke pertsona-markak aditzerroaren atzetik agertzea. Izenordainak aditzari uztartu zitzaizkion garaian euskarak hasieran adita, hots VSO edo VOS hizkuntza. Baina aditzak ezin uen perpaus hasierako erabateko lekua hartu.

Euskara oso aspaldiko Garai batean VSO (edo VOS) hizkuntza izan zela pentsatu. Aditza perpausaren hasieran.

Hirugarren pertsona ez zen markatzen. Pertsona-marka guztiak atzizki moduan azaltzean, aurrizki lekuan dauden markak esplikatzeke, erregela bat aditza perpaus hasierako erabateko lekuan egotea eragotzi, ondorioz klitiko batek edo partikula batek egon behar.

Arazoak: orainaldiko pertsona guztietan -a-

- TRASK → pertsona izenordainak 3.pertsonakoak
- GOMEZ → adizki bakarra pertsona guztietan eta geroago adizkiari pertsona markak gehitu.



## HISTORICAL SYNTAX AND BASQUE VERBAL MORPHOLOGY (TRASK 1977)

Trask artikulu honetan bi hipotesi saiatzen da argudiatzen:

- 1- Euskara SVO izatetik SOV izatera pasatu zela
- 2- Euskararen ergatibotasuna pasibotik datorrela, aktibo bat bezala interpretatuta zegoena

### Aditzetako persona markak

2.pertsonako d-, ø-, z-, l-, b-. d- orainari lotuta dago; ø-eta z- aldiz iraganari. Aditz kategorien markatzaileak dira, hau da, modua, aspektua eta denbora.

Aurrizki modalak SVO ordena duten hizkuntzei dagokie. Eta SOV hizkuntzei aldiz atzizki modalak.

### Kausatiboa

Euskarak bi kausatibo ditu: ra- aurrizkia eta –erazi atzizkia. Atzizkia, aurrizkitik sortu zela dio; beraz, ra- zaharragoa dela.

Hau honela, aurrizkiak SVO ordenari dagozkenez, -erazi behin euskara SOV izatera pasa zenean sortu zen.

### Ezezko esaldiak

SOV osotasunean diren hizkuntzen (Japoniera eta Turkiera), ezezkoaren partikula aditzaren ondoren ezartzen dute. Euskaraz ordea, beti doa aditzaren aurretik: Jonek ez zuen aita ikusi, Jonek ez zuen ikusi aita, Jonek aita ez zuen ikusi.

### Aditzaren barruko elementuen ordena

Bi ordena morfologiko posible euskaraz:

- Subj – erroa – ZO
- OZ – erroa — ZO — Subj

### Datibo marka

SOV hizkuntzetan arraroa da, pertsona berari dagozkien subjektu eta objektu markak desberdinak izatea: ni-, -t/-da-.

Datibo markak –ki- eta -i- esaterako, NORI morfemaren aurretik kokatzen dira aditzea:zatozkit.

SOV hizkuntzetan datibo marka, NORIren ondoren doa eta SVO hizkuntzetan aurretik. Beraz, euskara lehen SVO izatearen beste arrazoi bat.

### Pasibo marka → Ergatiboa

Ergatiboa berinterpretatutako pasibo marka bada, hau da, pasibo marka baten gainean eraikitako beste marka bat, pasibo marka zaharraren arrastoak aurkitu behar dira.

Traskek pasivo marka zahartzat  $n$ -.

4 maila SVO → SOV prosezuan

- Euskarak SVO ordena sintaktikoa zuen.
- Aurrizkiak eta persona izenordainak aditzari pegatu zaizkio marka morfologiko bezala.
- Pasiba ahotsa aktibo bezala berinterpretatu da.
- Ergatiboa aditz iragankorretako orainaldiko formetara zabaldu da.

## LAS ANTIGUAS CONSONANTES VASCAS (MITXELENA)

- Euskalkien zatiketa, estatuaren banaketa politikoak eta kultura bateratzaile bat ez edukitzeak, eragin handia hizkuntzetan. Gainera garrantzitsua latinaren eta hizkuntza erromantzeen eragina.
- Hots euskaldunak eragin handia izan dute NEUTRALIZAZIOAN: hasieran eta amaieran hotsak neutralizatu (ahostun/ahoskabe, frikari/afrikatu...) baina bokal artean bereizi.
- PALATALAK: indartsu/ahula ahula desagertu eta indartsua ezarri orokorrean. Salbuespena zori “txori” bezala ez da gorde.
- Kontutan hartu soilik aintzin euskaran eta Erdi Aroan: p,t,k,b,d,g; ts,tz,s,z; m.n.l.r.rr eta hasperena. Herskaria zenbait posiziotan espirante bezala, gazteleraz bezala, altzernantziak gertatu, disimilazioagatik.
- Herskarietako p/b bereizketak ez du garrantzirik hitzak ezberdintzeko, ez ahoskabe hasperendunak eta gabeak.
- F fornema bezala ez hots bezala. Baina esaten denaren aurka 1) euskaldunek f aspaldiko garaietatik erabili eta 2) f grafia Erdi Aroko dokumentuetan agertu. F, Pren aldaeratzat hartu izan da baina ez beti.
- Inoiz ez ziren geminatu bihurtzen: b,d eta g.
- TXISTUKARIAK (alde batera utziz x eta tx) Dialekto guztietan z/tz eta s/ts bereizketa
- FRIKARI/AFRIKATU: hasieran, espirante bezala, amaieran afrikatua. Corpus > gorputz
- DARDARKARIAK: Euskarak r/rr bereizten ditu. Bikoiztasun bat hitz barnean, ere/erre; ero/erro.
- SUDURKARIAK ETA ALBOKARIAK: XVI. mendean gutxi gorabehera gaur bezala, m,n,ñ eta l,ll.
- l bokal artean r. latineko ll berriz l
- Haiserako l eta n, baliteke posizio horretan orokortu izana forma ahulak ere, bokal artean r/h izango lirakeke.

### SISTEMA:

Fortes (p) t tz-ts k N L R

Lenes b d z-s g n l r

Eta gainera /h/a

m- txandaketa bat b, p eta f-rekin.

HIPOTESIA:

Euskara eta kaukasoko hizkuntzak familia linguistiko beraren kide direla onartuko dute soinu sistema eta formak ikusiz.